

**OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ADMINISTRAZIO  
KONTSEILUAREN 2024KO IRAILAREN 11KO EZOHIKO BILERAREN AKTA**

2024ko irailaren 11ko 12:15ean, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseilua eratu da modu ez-presentzialean. Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 17.5 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, kontseilu honen ondorioetarako, ulertzen da akta honetan jasotako erabakiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren egoitza nagusian hartu direla (Araba 45, Vitoria-Gasteiz), hura baita erakundearen egoitza.

Aurrekoa zehaztu ondoren, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluko presidentek deituta, honako kide hauek bildu dira: **Alberto Martínez Ruiz jauna**, Osasuneko sailburua eta presidentea; **Enrique Peiró Callizo jauna**, Osasuneko sailburuordea; **Miren Lorea Bilbao Artetxe andrea**, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordea; **José Enrique Corchón Álvarez jauna**, Eusko Jaurlaritzaren Finantza eta Aurrekontuetako sailburuordea; eta **Josu Iñaki Garay Ibáñez de Elejalde jauna**, Aurrekontuetako zuzendaria.

Presidenteak quorum nahikoa dagoela egiaztatu du, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak –Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituenak– eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezarritakoaren arabera, eta, horrenbestez, **bertaratuek osoko bilkura eratu dute**, presidentek deitutako bilkura egiteko eta aldeztatik bidalita zegoen gaitzerrendako puntuak eztabaidatzeko. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Estatutu Sozialen 8.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, Administrazio Kontseilu honetan izan dira, presidentearen baimenarekin, ente publikoko zuzendari nagusia, **Susana López Altuna andrea**, eta ente publikoko Aholkularitza Juridikoko zuzendariordea, **Maiteder Mielgo Rubio andrea** (idazkari gisa).

## GAI-ZERRENDA

**LEHENENGOA. – 2024ko irailaren 11ko bileraren akta irakurri eta onestea, hala badagokio.**

**ERABAKIA:** Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onartzen dute 2024ko irailaren 11n egindako bileraren akta.

**BIGARRENA. – Emergentzien Koordinatzaile Nagusiaren lanpostua konfiguratzeko erabaki-proposamena.**

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak, **Susana López Altuna andreak**, Emergentzia Zerbitzuaren egoera azaldu du. Azaldu duenez, egungo konfigurazioak ez die erantzuten dauden premiei, zerbitzu horiek kudeatzeko zailtasunen ondorioz. Hori dela-eta, Emergentzien Koordinatzaile Nagusi lanpostu bat sortu behar da, zeina Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiaren mende egongo den eta lurralde guztiak koordinatuko dituen; izan ere, lurralde osoari eragiten dio, eta helburua Emergentzietan sartzen diren zerbitzuen kudeaketa hobetzen saiatzea da. Hortaz, Osasuneko sailburuak, **Alberto Martínez Ruíz jaunak**, Emergentzien Koordinazio Nagusia sortzeko beharra ikusi du, egitura aldatuta, eta beharrezkoa da hura deialdi bidez betetzea.

Osasuneko sailburu **Alberto Martínez Ruíz jaunak** adierazi du Koordinatzaile lanpostuak berekin dakarrela lanpostua berregituratzea, hau da, Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeak koordinatzea, eta egitura bat eta kudeaketa- eta funtzio-plan jakin bat ezartzea.

Aurrekontuaren zuzendari **Josu Iñaki Garay Ibáñez de Elejalde jaunak** galdetu du ea Koordinatzaile lanpostu horrek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko plantillaren egiturazko aldaketa ekarriko duen, zuzendariorde maila duelako, eta horrek plantillan beste zuzendaritza-kide bat gehiago egotea esan nahi ote duen.

**Susana López Altuna andreak**, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak, erantzun du ez direla bi lanpostuak mantenduko, Gerentzia eta Koordinazioa, Gerentziaren lanpostua desagertu egingo baita.

Era berean, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusi **Susana López Altuna andreak** azaldu du Emergentzien Koordinatzaile Nagusiaren lanpostua betetzeko zuzendariordetza bat sortuko dela. Deialdi bat egin beharko da eta, lanpostua bete ondoren, haren egitura diseinatuko da. Egitura hori Administrazio Kontseilura ekarriko da.

Emergentzien Koordinatzaile Nagusiaren lanpostua sortzeko beharra azaldu ondoren, Emergentzien Koordinatzaile Nagusiaren lanpostua sortzea adostu da.

**ERABAKIA:** Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onetsi dute erabaki-proposamena.

#### **HIRUGARRENA. – Informazioa eta galde-eskeak.**

Eztabaidagai gehiagorik egon ez denez, bilera amaitutzat eman da, 2024ko irailaren 11ko 12:30ean.



**Izpta.- Maiteder Mielgo Rubio**

Idazkaria



**Izpta.- Alberto Martínez Ruiz**

Presidentea  
Osasuneko Sailburua  
O.E.